ORTZAIZEKO HERRIKO ETXEA
MAIRIE D'OSSÈS

# HERRI BILTZARRAREN ERABAKIEN AKTA
# ORTZAIZE HERRIA

**2023ko apirilaren 4ko saioa**

Bi mila eta hogeita hiruko apirilaren 4ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak:** CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Ezin etorriak:** AYÇAGUER Elorri, HEGUY Antton,
**Saioko idazkariaren izendapena:** PERUSANSENA Elodie

Deialdi data: 2023ko martxoaren 31a
Afixatze data: 2023ko martxoaren 31a

## 1.ERABAKIA: HERRIAREN 2023ko HASIERAKO AURREKONTUAREN BOZKATZEA
(7.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, honek baimena eman diezaiokeela kapitulu batetik besterako kreditu mugimenduak egiteko (langileria gastuez aparte), izan inbertsioetan nola funtzionamendu ataletan, atal hauetako bakoitzaren, gastu errealen %7,5 gainditu gabe. Halakoetan, kreditu transferentziak agintaritzaren erabakiz egiten dira, zeinak legezkotasun kontrolera igorri behar baitira. Diruzainari ere erabakiaren berri eman behar zaio eta Herri Biltzarraren saiorik hurbilenean horren berri ere eman beharko da. Herriaren kudeaketa errazteko, biltzarkideei proposatu die halako diru transferentziak egiteko baimena ematea.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

**BOZKA**: 2023ko kontu ekitaldiko Hasierako Aurrekontuko proposamen berriak:

| **Inbertsioak** | | **Funtzionamendua** | |
|---|---|---|---|
| Gastuak: | 743 840,00 | Gastuak: | 2 050 428.00 |
| Sartzeak: | 803 111.90 | Sartzeak: | 2 050 428.00 |

Aurrekontu orokorra:

| **Inbertsioak** | | **Funtzionamendua** | |
|---|---|---|---|
| Gastuak: | 909 900.00 (166 060.00 RAR) | Gastuak: | 2 050 428,00 |
| Sartzeak: | 909 900,00 (106 788.10 RAR) | Sartzeak: | 2 050 428,00 |

**BAIMENA EMAN DIO** Auzapezari kapitulu batetik beterako kreditu mugimenduak egiteko (langileria gastuez aparte), izan inbertsioetan nola funtzionamendu ataletan, atal hauetako bakoitzaren, gastu errealen % 7,5 gainditu gabe.

Biltzarkideen kopurua: 15
Presente ziren biltzarkideak: 13
Bozka kopurua: 13
ALDE: 13
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean deliberaturik, Presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko apirilaren 4an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Akta indarrean da,
2023/04/11an argitaratu eta jakinarazi denetik
eta 2023/04/11 suprefekturara igorri denetik